



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

89 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako langileen lanbide karreraren sistema arautzen duena. Akats zuzenketa (4. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena (5. or.).

#### I SAILA:

##### **Parlamentuko Jarduera:**

- 2001eko abuztuan egindako bilerak (9. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko abuztuan sartu diren dokumentuen zerrenda (9. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatze-ari buruzkoa**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Demokratikaren Elkar-gunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatze-ari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dit. Proposamen hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

##### 1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 273. artikulua honela idatzita geratuko da:

“273. artikulua. Lagapenak.

1. Udalaren lurzoru-ondareko terreneak besterentzeko honako arau hauek beteko dira:

A) Hirigintza-planeamenduaren arabera etxebizitzetarakoak diren ondasunak besterentzeko honako prozedura hauetako bat jarraituko da:

a) Lehiaketa publikoa edo enkantea.

b) Zuzenean, Foru Komunitateko titulartasun publikoko sozietate instrumentalei.

b) Lehiaketa bidez irabazi-asmorik izan gabe babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizit-

tzen eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarritasuna bermatzeko bitartekoak eta esperientzia dauzkatela frogatzen duten laguntza-, gizarte- edo sindikatu-izaerako erakunde diren eskatzaileei. Kasu horretan, toki erakundeek behar diren neurriak hartuko dituzte babes publikoko araubideari loturiko etxebizitzaren azken hartzaileek etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

c) Administrazioen arteko lagapenak, hurrengo artikuluan arautuak. Besterentzearen baldintzetan galdatuko da hura zilegitzen duten helburuak eta etxebizitza eskuratzeko eskatutako betebeharrak bete daitezela; haien artean, itzulketa, lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera-eskuratzeko eskubidea ezarri ahalko dira.

B) Planeamenduak industriarako, merkataritza-erako edo errentagarritasun ekonomikoa erakar dezaketenean beste erabilera batzuetarako bideratzen dituen terreneak enkante publikoz besterentzeko dira, toki entitateei aplikatzeko den araubideari jarraituz.

Enkantea esleitu gabe amaitzen bada, berriro ekinen zaio besterentze-ari. Bigarren enkante horretan esleipen-hartzailerik ez badago, besterentzea zuzenean egin ahalko da, lizitazioko prezio tipoaz, eta eraikina sei hilabeteko epean hasi eta bere ezaugarrien arabera epean, inoiz ez bi urte baino gehiagotan, bukatzeko betebeharrak ezarri.

C) Ekipamendu eta zerbitzu publikoetarako terreneak zuzenean eta dohainik laga ahalko zaizkie instalazioen eraikuntza eta kasuan kasuko zerbitzua ematea euren hartzen duten erakunde ofizialei.

Partikularrek irabazi-asmorik gabe eman ditzaketenean zerbitzuak eta ekipamenduak baldin badira,

besterentzea egin ahalko da zuzenean eta dohainik; itzulketa-klausula izanen du bost urteko epean instalazioa ez egitearen edo hurrengo hogeitun urteetan zehar hura ez mantentzearen kasurako.

2. Besterentzeen prezioak ezin izanen dira izan besterentzen den aprobetxamenduaren hirigintza-balioa baino baxuagoak.

Enkante bidezko besterentzeetan, hasierako prezioa gutxienez hirigintza-balioa izanen da, eta horri gehituko zaizkio planeamendu, urbanizazio eta kudeaketaren ondoriozko kostu proportzionalak, eta egokitzerako beharrezkoak diren ekintza administratibo eta materialetatik eratortzen diren guztiak.

3. Etxebizitzetarako terrenoak besterentzeko baldintza-orrietan zehaztuko dira urbanizazio eta eraikuntza obrak egiteko gehieneko epeak, etxebizitza eta lokalak saldu edo alokatzeko prezio eta baldintzak, etxebizitzak eskuratuko dituztenen ezaugarri sozioekonomikoak, etxebizitzaren kalitatea arkitekturaren eta zerbitzuen ikuspegitik, eta proposamenen bideragarritasuna bermatzeko bitarteko tekniko eta ekonomikoen ezaugarriak".

Zioak: Lagapenak direla eta, 273. artikularen aldaketa prestatzerakoan proposaturiko helburuei hobeki egokitzen zaien testua ematea.

## 2. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

271. artikuluko 2. idatz-zatia indargabetzeko zuzenketa.

Indarrrik gabe uzten da Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 2. idatz-zatia.

## 3. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

B) letra aldatzeko zuzenketa. Ondoko testua izanen du B) letrak:

B) Planeamenduan industri edo zerbitzuen erabileretarako ezarritako lurra besterentzeko, ondoko prozeduretako bat erabiliko da:

a) Lehiaketa publikoa, aurretiko lehiaketa batean hautaturiko lizitatzailen arteko enkantea edo enkante hutsa.

b) Zuzenean Foru Komunitatearen titularitate publikoko tresna-sozietateei.

Zioak: Toki entitateei lur industrialak eta zerbitzu erabilerarako lurra eskuratzeko politika aktiboak sustatzeko ahalmenetan kalte egin dakien saihestea.

## 4. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. C) 2 idatz-zatia, bigarren lerrokadaren bukaeran, ondoko testua gehitzea proposatzen da.

"...eratortzen diren guztiak, eraiki zen urtetik iragandako urteen arabera dagokion balio-galeran gutxituz; betiere, teknikari aditu baten balorazioaren bitartez egin ahal izanen da.

Zioak: Toki entitateei kalte egin dakien saihestea.

## 5. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

273. artikuluko B) letra aldatzeko zuzenketa

"bideratzen dituen terrenoak enkante publiko besterenduko dira" esaten duen tokian "bideratzen dituen terrenoak besterentzeko enkante publikoari emanen zaio lehentasuna"

Beraz, honela geratu da testua:

"beste erabilera batzuetarako bideratzen dituen terrenoak besterentzeko enkante publikoari emanen zaio lehentasuna, toki entitateei aplikatzeko den araubideari jarraituz."

Zioak: Foru Administrazioak ez ezartzea toki administrazioei lurra besterentzeko prozedura jakin bat. Bai da gomendagarria enkanteari lehentasuna emateko aholkua ematea, lurren besterentzea industri eta merkataritza erabileretarako denean.

**6. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa. 273. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa

B) letraren ondoren, beste letra bat gehitzea. Hona testua:

C) Aparteko kasuetan, aurreko letran aipatzen den lurra interes publikoko erabilera edo proiektuetarako erabili nahi denean, udalek, beren esku-menak erabiliz, aipatu lurrak besterendu ahal izanen dituzte 273.1 artikuluan ezarritako bestelako prozedurei jarraituz.

Zioak: Industri eta merkataritza erabileretarako lurrak besterentzerakoan enkanteaz besteko prozedurak erabiltzea aparteko gauza bat dela azpimarratzea, hartara toki entitateen autonomia errespetatuz.

**7. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa. 273. artikuluari beste letra bat gehitzea, C) letraren ondoren. Hona testua:

D) Erabilera industrialetarako, merkataritza-korako, etxebizitza libreak eraikitzeke edo errentagarritasun ekonomiko bat sor dezaketen gainerako erabileretarako Foru Administrazioaren lur publikoak besterentzeko enkante publikoa erabiliko da.

Zioak: Lege honetan finkatuta uztea errentagarritasun ekonomiko sor dezaketen erabileretarako Foru Administrazioaren lurrak besterentzeko enkantea erabiliko dela; hartara, eredia ematen zaie toki entitateei halako kasuetan prozedura hori erabil dezaten.

---

**Foru Lege proposamena, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako langileen lanbide karreraren sistema arautzen duena**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats zuzenketa atzeman da aipatu legeko gaztelaniazko bertsioan. 2001eko maiatzaren 22ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (53. zenbakia) eman zen argitara. Honen bidez zuzentzen da akats hori.

7. orrialdean, xedapen indargabetzailean, hauxe dio: "Quedan derogadas cuantas disposi-

ciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan a". Beste hau esan behar du: "Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan a la presente Ley Foral".

Iruñean, 2001eko irailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**Serie H:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abuztuaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarreko Mahaiak 2001eko uztailaren 3an onetsitako Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena ikusita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamenari buruz irizpena emateko ahalmena Erregelamenduko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epea **2001eko urriaren 1ean, eguerdiko hamabietan**, bukatuko da. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko irailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutua aldatzeko proposamena**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko negoziazioen ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko hitzarmena, 2000 eta 2001erakoa, sinatu zen 2000ko ekainaren 8an. Hitzarmen hori 2000ko ekainaren 12an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak.

Aipaturiko hitzarmenean xedatuari jarraituz, Nafarroako Parlamentuak haren edukiak gauzatu behar ditu kasu bakoitzari dagokion mailako arauan, hitzarmena formalki onetsia gera dadin eta indarra har dezan.

Hitzarmeneko 5.3 idatz-zatiari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko langileen Estatutuko 12. artikuluari testu berria ezarri zaio, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne-igoeraren araubidea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bateginean xedatuaren antzeko moduan jasotzeko.

Hitzarmenak agintzen du, bigarrenik, beharrezkoak diren aldaketak egin daitezela, langileek laneko eta familiako eginkizunak batera eraman ahal izateko azaroaren 5eko 39/1999 Legeko xedapenak aplikatu ahal izateko. Horrek eszedentzia berezia beste modu batean arautzera behartzen du, haren edukian sakonduz.

Bestalde, interes partikularren ondoriozko borondatezko eszedentzia hemezortzi hilabetera luzatzeak Estatutuko 19. artikulua aldatzera behartzen du. Aldaketa horixe egin behar da, halaber, Langileen Batzordeko kide-kopurua Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bateginak xedatuari egokitzeko.

Langileen Batzordearekin izenpeturiko hitzarmenean berriaz ezarri ez bazen ere, komenigarritzat jo da, harekin ados jarrita, C eta D mailetako funtzionarioek indarreko plantilla organikoan esleituta dauzkaten maila-osagarriak Estatutuan sartzea.

Orobat, 4. artikuluan idatz-zati bat sortu behar da, kontraturiko langileen ordainsariak arautzeko, eta, funtzionarioen ordezkariarekin hitzarturikoari jarraikiz, antzinasun-saria sartu behar da hor.

**Artikulu bakarra.** 1991ko martxoaren 20ko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan honako aldaketa hauek eginen dira:

**Lehena.** 4. artikuluari 4. idatz-zati berri bat gehituko zaio, zeinak honako testu hau izanen baitu:

“4. Kontraturiko langileen ordainsaria jarduten ari diren lanpostuari dagokiona izanen da. Emandako zerbitzuen antzinasun-saria ere jasoko dute, baldin eta beste administrazio publiko batetik jasotzen ez badute.”

**Bigarrena.** 12. artikulua aldatuko da, eta honela idatzita geratuko da:

“1. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioak Nafarroako Foru Komunitateko funtzio publikorako oro har ezarritako mailetan sartuko dira, haiek kargua eskuratzeko beharrezkoa den titulazioaren arabera.

2. Parlamentuko funtzionarioek Parlamentu Administrazioaren barneko administrazio-karrerarako eskubidea izanen dute; horrela, maila jakin batetik goragoko beste batzuetara igo ahalko dira, eta, kidego bakoitzaren barnean, graduz eta kategoriaz ere igo ahalko dira.

3. Mailaz igo ahal izateko, sarrera-hautaprobe-tan postu hutsak erreserbatuko dira, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek txanda murriztuan bete ditzaten, baldin eta, betiere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Deialdiko postu hutsei dagokien maila baino baxuagokoak izatea.

b) Deialdiak eskatzen duen titulazioa izatea eta administrazio publikoetan bost urteko antzinasun aitortua daukatela frogatzea.

c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzia-egoeran ez egotea.

d) Kasuan kasuko hautaprobak gainditzea.

4. C mailako lanpostu hutsei dagokienez, administrazio publikoetan zortzi urteko antzinasun aitortua frogatzea aurreko idatz-zatiko b) letran adierazitakoen ordezkoko baldintza izan ahalko da.

Bete beharreko eginkizunak direla-eta titulazio berezi bat edukitzea –legeak hala aginduta– nahitaezkoa duten lanpostu hutsetarako ez da horrelako aukerarik emanen.

5. Txanda murrizturako erreserbatutako lanpostu hutsak honako formula honen arabera zehaztuko dira: bakoitiak txanda irekian, eta bikoitiak barne igoerakoan. Formula hori lanpostu huts bakarra betetzea xede duten deialdiei ere aplikatuko zaie; horretarako, kontuan izanen da zein txandatakoa suertatu zen, azken deialdian, betetzeko deituriko lanpostuetatik azkena.

6. Txanda murriztuan bete gabe gelditzen diren lanpostu hutsak txanda irekikoei gehituko zaizkie.

Era berean, barne igoerako txandan hautaprobak gainditu duten izangaien kopurua lanpostu hutsen kopurua baino handiagoa bada, txanda horretan hautaprobak gainditu bai baina posturik lortu ez duten izangaiek txanda irekiko lanpostu hutsetarako aukera izanen dute, txanda horretako izangaiekin lehia zorrotzean, lorturiko amaierako puntuazioaren arabera.

Betiere, barne igoerako txandan hautaprobak gainditzen dituzten funtzionarioek lanpostu hutsak betetzeko lehentasuna izanen dute txanda horretakoak ez diren izangaiekiko.

7. Txanda murriztuan parte hartu ahalko dute deituriko lanpostu hutsen maila berekoak diren funtzionarioek, baldin eta eskaturiko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

8. Eraginkortasun eta ekonomiari dagozkien arazoak direla-eta lanpostuen antolamenduan eta eginkizunetan aldaketak egitea komeni denean, eta aldaketa horien nahitaezko ondorio gisa langileak goragoko kidego edo maileri atxiki behar zaizkienean, hautapoba murriztueterako deialdia egin ahalko da, salbuespen gisa, baina deialdiko lanpostu hutsek ezin izanen dute ekarri dagoen plantillako lanpostu-kopurua gehitzea.

Neurri hori erabili ahalko da, salbuespen gisa ere, zerbitzuak antolatu eta agindutako eginkizunak bete ahal izateko zenbait lanpostu barne igoeraren bitartez betetzea beharrezkoa denean.

9. Hurrengo gradura igo ahal izateko, gradu berean bost urte eman beharko dira. Horren salbuespen izanen dira 7. gradua lortu dutenak.

**Hirugarrena.** 19. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letrak honako testu hau izanen du:

“c) Funtzionarioaren interes partikularrarengatik. Jatorriko postua erreserbatuta izanen du lehen hemezortzi hilabeteetan. Eszedentzia hau zerbitzuko beharriaz posible egiten badute baimenduko da, eta beharrezkoa izanen da interesatuak frogatzea zerbitzu aktiboan edo horren pareko egoeran eman duela eskaera aurkezpen-egunaren aurreko urtebetea, gutxienez ere.”

**Laugarrena.** 20. artikulua aldatuko da. Honako testu hau izanen du:

“1. Eszedentzia berezia deklaratu da, aipatzen den eperako, funtzionarioak hala eskatuta, eta honako kausaren bat frogatzen denean:

a) Gehienez ere hiru urterako, seme edo alaba bakoitza zaintzeko, bai ume naturala denean bai adopziozkoa edo familian hartutakoa (harrera iraunkor edo adopzioaren aurreko harrera-fasekoa). Epe hori kontatzen hasiko da jaiotza-egunetik edo, kasuaren arabera, epaileak edo administrazioak emandako ebazpenaren egunetik aurrera.

b) Gehienez ere hiru urterako, ardurapean duen ahaide bat zaintzeko, bigarren maila bitarteko ahaidetasun-gradua –odolkidetasunez nahiz afinitatez– badute, baldin eta ahaide horrek, bere adinagatik, istripu batengatik edo eritasunagatik ezin badu bere burua zaindu, eta ez badu aldizka egiten diruz ordainduriko jarduerarik.

2. Eszedentzia bereziaren epea bakarra izanen da subjektu eragile bakoitzeko. Subjektu eragile berri batek eszedentzia berezi berri bat eragiten duenean, horren epearen hasierak amaieraz egiten du ordura arte abian zegoena.

3. Eszedentzia hori funtzionarioen eskubide indibidual bat da. Bi funtzionarioek subjektu eragile berarengatik eszedentzia izateko eskubidea badute, haiek eskubideaz aldi berean baliatzeari mugak jarri ahalko zaizkio, zerbitzuen funtzionamenduarekin zerikusia daukaten arrazoi frogatuak direla-eta.

4. Eszedentzia berezia emateko, hark irauten duen bitartean beste jarduera profesional edo lanik egiten ez duela adierazi beharko du funtzionarioak, betiere.

5. Eszedentzia berezian dauden funtzionarioek betetzen ari ziren postua erreserbatuta izateko eskubidea dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko. Hala ere, egoera horretan igarotzen duten denbora guztia aintzat hartuko zaie antzintasun-ondorioetarako; eskubide pasiboen ondorioetarako, daukaten gizarte-aurreikuspeneko araubideari dagokion araudiak xedatua aplikatuko da.

6. Eszedentzia bereziaren iraupen-epea bukatu ondoren, interesatuek zerbitzu aktibora itzuli beharko dute, hain zuzen ere jatorriz zuten postura, eszedentzia bukatu eta biharamunean.

7. Eszedentzia bereziaren iraupen-epea bukatu ez denean ere, interesatuek edozein unetan eskatu ahalko dute zerbitzu aktibora itzultzea, eta ezin izanen dute hura gertakizun berberagatik berriro eskatu. Postura itzul daitezen erabaki

ondoren, aurreko artikuluko 3. idatz-zatiak xedatua aplikatuko da”.

**Bosgarrena.** 29. artikuluko 1. idatz-zatiak honako testu hau izanen du:

“1. Funtzionarioek ordainsari hauek bakarrik jaso ahalko dituzte:

a) Oinarrizko ordainsariak.

b) Lanpostuaren ordainsari osagarriak.

c) Artikulu honetako 4. eta 5. artikulua aipatzen dituzten ordainsariak.”

**Seigarrena.** 29. artikuluari idatz-zati berri bat gehituko zaio.

“5. C eta D mailetako funtzionarioek osagarri bat jaso ahalko dute. Horren zenbatekoa plantilla organikoa onestean zehaztuko da, eta inoiz ere ezin izanen da izan kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 15 baino handiagoa.”

**Zazpigarrena.** 33. artikuluko 1. idatz-zatiak honako testu hau izanen du:

“1. Langileen Batzordea osatuko dute zerbitzu aktiboan dauden Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek eta administrazio-araubideko langile kontratatuek. Egoera horrexetan daudenek hautatuko dituzte, sufragio orokor, aske, berdin, zuzen eta sekretuz. Langileen Batzordea osatzen duten ordezkarien kopurua honako eskala honen arabera izanen da:

– 26tik 50era arte: 5

– 51tik 100era arte: 7

– 101etik aurrera: 1 gehiago 100 edo frakzio bakoitzeko.”

### Xedapen iragankorrak

**Lehena.** 1. artikulua aipatzen dituen langile kontratatuei antzintasun-saria aitortzeak 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorio ekonomikoak.

**Bigarrena.** Interes partikularraren ondoriozko borondatezko eszedentziek daukaten postu-erreserbaren iraupen-epearen luzapena ofizioz aplikatuko zaie jadanik deklaraturikoei, baldin eta aldaketa honek indarra hartzen duenean urtebeteko erreserba-epea amaitu ez bada.

**Hirugarrena.** Baldin eta 2000n interes partikularraren ondoriozko borondatezko eszedentzia lortu zuten langileek frogatzen badute araubide berri honek eszedentzia berezirako ezartzen dituen baldintzak eszedentzia lortu zuten egunean

betetzen zituztela, aldaketa egitea eskatu ahalko dute, eta horren ondorioak hasierako deklaraziotik sortuko dira.

**Azken xedapena**

Aldaketa honek indarra hartuko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

---



---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2001eko abuztuan egindako bilerak

### MAHAIA

30ean.

### MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

27an.

---

## Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko abuztuan sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Idazkia, AEMena. Horren bitartez, Batzar Nagusia hurrengo irailaren 28an izanen dela jakinarazten du.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez telefonia mugikorreko erradiazio elektromagnetikoei buruzko informazioa eskatzen du.

3an:

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, jakinarazten du Parlamentuko taldeak izena aldatu eta orain "Batasuna" izanen dela.

– Irizpena, Nafarroako Kontseiluarena. Nafarroako foru administrazioko atalburu eta bulego-buruen izendapena legearen arabera ote den aztertzen du.

7an:

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez, Parlamentuko lehendakariak Boliviako agintariengana jo dezala eskatzen du, Nafarroako kooperanteen egoeraren gaineko informazioa lor dezan.

8an:

– Idazkia, Joaquín Pejenaute Cervera jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

10ean:

– Idazkia. Horrekin batera, Barañaingo Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakia globalizazioaren eta Genoako gertakarien inguruan.

– Idazkia, María Asunción Erice Echeagaray andrearena. Horren bitartez, uko egiten dio epaimahaikide izateari bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko lehiaketan.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposameneko zenbait artikuluri Justizia Ministerioak eginiko oharrak.

13an:

– Idazkia. Horrekin batera, Iruñeko Udal Plana onetsi zuen Osoko Bilkuraren erabakia.

14an:

– Idazkia, Eva María Aladrén Sierra andrearena. Horien bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia. Horrekin batera, Olèrdolako Udalak, Osoko Bilkuran, ETAREN atentatuak gaitzesteko hartutako erabakia.

– Galdera, euskara normalizatzea eta garatzea helburu, komunikabideei laguntzak emateko aurrean izan den deialdiari buruzkoa. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, lan bilera egitea eskatu dute suhiltzaileen partzuergoko lan batzordearekin, azal dezaten zenbateraino bete den Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzendaria.

#### **16an:**

– Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak udal autonomia errespetatuko duen jakiteko. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez Osasun kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan Bideko Ama Birjinaren Ospitalean legionella agertu izanari buruz.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez, informazioa eskatzen du legionella agertu izanari buruz.

– Idazkia. Horrekin batera, Altsasuko Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakia Genoako gertakarien inguruan.

#### **17an:**

– Idazkia, Trinidad Naval Núñez andrearena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez Osasun kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan Bideko Ama Birjinaren Ospitalean legionella agertu izanari buruz.

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez Osasun kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan Bideko Ama Birjinaren Ospitalean legionella agertu izanari buruz.

#### **20an:**

– Foru Lege proiektua, Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Gobernuak igorri du.

– Idazkia, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunarena. Horren bitartez Osasun kontseilariaren agerraldia eskatu du, informazioa eman dezan Bideko Ama Birjinaren Ospitalean legionella agertu izanari buruz.

#### **21ean:**

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala”.

– Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga gisa ordaindutako kuoten kenketari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Patxi Xabier Garmendia Goicoechea jaunarena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez Nafarroako Gobernuak lehendakaria lehenbailehen ager dadila eskatzen du.

– Idazkia. Horrekin batera, Tuterako Udalak etorkinak legezketzeari buruz hartutako erabakia.

– Idazkia, José Loyola Eraso jaunarena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

#### **24an:**

– Galdera, euskara normalizatzea eta garatzea helburu, komunikabideei laguntzak emateko aurrean izan den deialdiari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan basurdeak kontrolatzeko Zaraitzun.

– Galdera, ospitale barreneko infekzioen ondoriozko erikortasun eta hilkortasunari buruzko datuak 1999, 2000 eta 2001ean zein izan diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleetan jakiteko galdera. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko Segurtasun eta Osasun Batzordearen agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan legionella agertu izanari buruz.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko zuzendariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan legionella agertu izanari buruz.

– Idazkia, Rosa García Loire andrearena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

#### **27an:**

– Idazkiak, Virginia Armendáriz Navarra andrearena eta Patricia Azcona Ema andrearena. Horien bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, Europako Kontseiluarena (Novi Sad). Horrekin batera, Europa hego-ekialdeko hiri eta eskualdeen forumari buruzko informazioa.

– Idazkia, Europako Kontseiluarena (Strasbourg). Horrekin batera, Europa hego-ekialdeko hiri eta eskualdeen forumari buruzko informazioa.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, proposatzen da Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralarengana jo eta eska diezaiola ezen CISEk (ikerketa soziologikoen zentroa) informazio, azterlan eta abarrekoak prestatzen dituenean Parlamentuko taldeei igor dakizkiela.

#### **28an:**

– Idazkia, Esther Martínez Acedo andrearena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, kamineroen etxeei buruz Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, gizarte bazterkeriaren aurkako ekintzei buruz foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andrearen eginiko galderaren erantzuna

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, hainbat aurrekontu aldaketa egiteko ekainean onetsitako erabaki, foru agindu eta ebazpenak.

– Galdera, Nafarroako Gobernuak Burlatan beste ikastetxe bat egiteko asmorik duen jakiteko. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez Ermitaberri ikastetxeko gurasoen elkartearen agerraldia eskatzen du Hezkuntza eta Kultura Batzordean, informazioa eman dezan duten leku faltari buruz.

#### **29an:**

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Mariné Pueyo Danso andrea parlamentari izan dadila eskatzen da Pablo Muñoz Trigo jaunaren ordez.

– Idazkia, María Dolores San Martín Hermoso de Mendoza andrearena. Horren bitartez, merezimendu gehiago ekarri ditu Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako.

– Galdera, Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Itoizko urtegian kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, hainbat aurrekontu aldaketa egiteko uztailean onetsitako erabaki, foru agindu eta ebazpenak.

– Idazkia, José Ignacio San Martín Menéndez jaunarena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, Susana Ancizu Ayesa andrearena. Horren bitartez, merezimendu gehiago ekarri ditu Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako

– Idazkia, ACS-ACR EABrena. Horren bitartez Segurtasun plana betetzen duela jakinarazi du.

– Idazkia, gutxitu fisikoen koordinakundearena. Horren bitartez, eranskin gisa aurkeztutako agiriak Parlamentuko taldeei helaraztea eskatu du.

**30ean:**

– Idazkia, Probintziako Hauteskunde Batzordearena. Horren bitartez ziurtatu du Marina Pueyo Danso dela Euskal Herritarroken zerrendan hurrengoa.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez, 2002tik 2004ra bitarteko Enplegu Planari buruzko informazioa eskatu du.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez, Nafarroa jatorrizko deitura duten ardoei buruzko plan estrategikoaren gaineko informazioa eskatu du.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez, Nafarroa jatorriko deitura duten ardoen salmenten gutxitzeari buruzko informazioa eskatu du.

– Galdera, Erriberriko ardo museoari buruzkoa. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeko eskaerari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Yolanda Iriarte Barca andrearena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, suhiltzaile eta kamineroen etxebizitza hutsei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Tuterako suhiltzaile eta kamineroen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, “Lan arriskuei buruzko informazio plana” kontusailaren betetzeari buruz foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, zenbait epaitegi zaintzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Erabaki proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bitartez, Mahaia eta Eledunen Batzarrari eskatzen zaie aktualitateari buruzko galdetegia aldatu eta errealitate politikora egokitu dezatela; hain zuzen ere, Euskal Herritarroken ordez Batzarre, Aralar eta Batasuna jarrarazi dezatela.

– Idazkia, Aralarrena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuak irailean eginen duen inkestan Aralar ere aukera politikoetako bat izan dadila eskatzen du.

**31n:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Gizarte bazterkeriaren aurkako jarraipen batzordearen erabakia.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, proposatzen da Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza kanpaina luza dadin.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, toki hitzarmenerako departamentuarterko batzordearen lanei buruz foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aranaz Echarri jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Susana Sáenz de Navarrete andrearena. Horren bitartez, merezimendu gehiago ekarri ditu Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako.

– Idazkiak, Sofía Rodríguez Palacios andrearena, Leandro Angulo Tobalina jaunarena, Miren Gurutze San Francisco Zabal andrearena eta María Arantzazu Ariztia Murua andrearena. Horien bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkiak, Carmen Lumbier Echeverría andrearena eta José Torres Suescun jaunarena. Horren bitartez, merezimendu gehiago ekarri dituzte Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako.